

BORROKA SINDIKAL FEMINISTA

AURRERA

EL SINDICALISMO COMBATIVO NO ES DELITO

Tal y como hemos denunciado reiteradamente, el sistema capitalista, heteropatriarcal, racista y ecocida se aprovecha del trabajo precario y gratuito de las mujeres; sobrevive y se perpetúa a costa de nuestra explotación. Los trabajos que realizamos las mujeres tanto en el ámbito del empleo formal como fuera de él, imprescindibles para la sostenibilidad de la vida, han sido invisibilizados, privatizados y precarizados durante mucho, muchísimo tiempo.

Pero cada vez somos más las que hemos decidido levantarnos y avanzar en el camino abierto por el movimiento feminista de Euskal Herria y por las incipientes luchas sindicales feministas. Las trabajadoras de los sectores feminizados y precarizados no estamos dispuestas a seguir haciendo el juego al sistema, ni a trabajar gratis o mal pagadas para éste.

Hemos decidido plantarnos ante la brecha salarial, la imposibilidad de conciliar la vida personal, laboral, familiar y militante, las condiciones de trabajo con jornadas interminables, salarios de miseria, y nulo reconocimiento; la inseguridad laboral y la pérdida de salud en el empleo, las dobles y triples jornadas por la falta de voluntad política y de la patronal para que los trabajos de cuidados se repartan de manera justa y equitativa en nuestra sociedad.

Pedimos acabar con todas las situaciones de discriminación que enfrentamos cada día en nuestros centros de trabajo: residencias, limpieza, trabajo de hogar, oficinas, supermercados, conserveras, comedores, telemarketing, oficinas, hospitales, comercio... En todos y cada uno de los lugares en los que desarrollamos nuestros trabajos estamos discriminadas, desvalorizadas, invisibilizadas y precarizadas.

Pedimos una reorganización de todos los cuidados que hagan posible y digna la vida de todas las personas. Y no sólo pedimos, sino que actuamos, nos movilizamos. Las feministas, las sindicalistas, estamos organizándonos, realizando acciones, saliendo a la luz, reivindicando justicia, saliéndonos de nuestros roles de género tradicionales e impuestos y reivindicando cambios radicales.

Las sindicalistas de LAB hicimos una acción de protesta en la sede de la CEN, sí, nos subimos a un camión de una empresa explotadora como es ISN, también, para denunciar que la Patronal es responsable de la discriminación y explotación de las mujeres trabajadoras.

Como también ocupamos en su día la sede de Emakunde, o la Diputación de Gipuzkoa en el contexto del conflicto de las Residencias; para denunciar que, a pesar de los discursos políticamente correctos, en la práctica las instituciones asumen y en muchos casos coprotagonizan las políticas discriminatorias.

Es evidente que los poderes establecidos, la Patronal, el aparato judicial y policial, está intentando neutralizar y penalizar nuestras

acciones mediante detenciones, multas, servicios mínimos del 100% para dejar las huelgas sin efectos, despidos cotidianos... El montaje policial de esta semana, orquestado entre Patronal y un aparato judicial-policial a su servicio, es una muestra de ello.

No es casualidad que ante nuestra reacción el sistema responda, y responda como lo está haciendo. Ante nuestra lucha, el sistema capitalista heteropatriarcal se rearma. Nos censura, nos detiene, nos castiga, nos quiere disciplinar para que tengamos miedo, nos callemos y seamos sumisas. Porque al sistema le molesta mucho que nos resistamos y rebelemos ante el lugar en el que nos quiere tener.

Porque al sistema no le cuadra ni le interesa ni puede soportar que seamos nosotras, las mujeres trabajadoras, quienes le confrontemos. No es casualidad que cuando más organizada está nuestra lucha sindical feminista, cuando más repercusión y seguimiento está teniendo, cuando nos salimos de lo que "se espera de nosotras", la respuesta haya sido contundente, violenta y extrema.

No es casualidad que este montaje policial, al hilo de dos acciones sindicales feministas concretas, se produzca en Navarra, donde ha imperado (y perviven elementos de) un Régimen antidemocrático, tremendamente agresivo respecto al euskara y la cultura vasca, a las reivindicaciones sociales y también respecto a los derechos de las mujeres*.

Estamos poniendo en cuestión el orden establecido y nos han lanzado el mensaje de que lo vamos a pagar caro. Como mujeres y como trabajadoras. El capital no puede soportar que consigamos condiciones laborales y vidas dignas; está poniendo todas sus herramientas para impedir que alcancemos nuestros objetivos. Lo que no saben patrones y jueces es que ante sus ataques nos hacemos más fuertes, nos aliamos, nos organizamos, nos apoyamos.

Quieren hacernos creer que las mujeres* no tenemos legitimidad ni somos sujetos políticos de nuestras luchas, menos todavía en el ámbito laboral; que no estamos autorizadas para reclamar nuestros derechos. Pues bien, iros preparando porque no vamos a dar ni un paso atrás, no vamos a dejar ni una reivindicación de lado, no va a quedar ni una compañera al borde del camino, vamos a seguir luchando todas juntas y con más fuerza que nunca.

Como decíamos de pequeñas, "por mí y por todas mis compañeras".

Gora borroka feminista!
Gora sindikalismo
feminista!

The LAB logo consists of the letters 'LAB' in a bold, white, sans-serif font, set against a dark blue rectangular background.

BORROKA SINDIKAL FEMINISTA

AURRERA

EL SINDICALISMO COMBATIVO NO ES DELITO

Behin eta berriz salatu dugun bezala, sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista eta ekozidak emakumeen lan prekarioa eta doakoa baliatzen du; bizirik irauten du eta betikotu egiten da gure esplotazioaren kontura. Emakumeok egiten ditugun lanak, bai enplegu formalaren esparruan, bai hortik kanpo, bizitzaren jasagarritasunerako ezinbestekoak direnak, ikusezin bihurtu, pribatizatu eta prekarizatu egin dira luzaroan.

Baina gero eta gehiago gara Euskal Herriko mugimendu feministak eta borroka sindikal feministek irekitako bidean aurrera egitea erabaki dugunok. Sektore feminizatu eta prekarizatuak langileok ez gaude prest sistemaren jokoa egiten jarraitzeko, ez eta sistemarentzat doan edo gaizki ordainduta lan egiteko ere.

Planto egitea erabaki dugu; planto soldata-arrakalari; bizitza pertsonala, lanekoa, familiakoa eta militantea bateratzeko ezintasunari; lan-baldintzei, lanaldi amaigabeei, miseriako soldatei eta aitortza ezari; laneko segurtasunik ezari eta osasun-galerari; lanaldi bikoitz eta hirukoitzari; zaintza lanak modu zuzen eta parekidean banatzen ez dituen ereduari.

Egunero-egunero geure lantokietan pairatzen ditugun diskriminazio-egoera guztiekin amaitzea eskatzen dugu: adineko egoitzetan, garbiketan, etxeko lanetan, bulegoetan, supermerkatuetan, kontserba lantegietan, jantokietan, telemarketinean, ospitaletan, merkataritzan... Leku hauetan guztietan baztertuak, diskriminatuak eta prekarizatuak gaude.

Zaintza lan guztiak berrantolatzea eskatzen dugu, pertsona guztien bizitza duina izan dadin. Eta eskatu ez ezik, ekin ere egiten dugu, mobilizatu egiten gara. Feministok, sindikalistok, antolatzen ari gara, ekintzak egiten ari gara, plazara ateratzen ari gara, gure ohiko genero-roletatik eta mugetatik irteten ari gara; eta aldaketa erradikalak sustatzen ari gara.

LABeko sindikalistok protesta-ekintza bat egin genuen CENen egoitzan, bai, ISN enpresa ustiatzaile bateko kamioi batera igo ginen, baita ere, Patronala emakume langileen diskriminazioaren eta esplotazioaren arduraduna dela salatzeke.

Bere garaian Emakunderen eta, egoitzeako gatazkaren testuinguruan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza ere okupatu genituen; politikoki zuzenak diren diskurtsoak gorabehera, praktikan erakundeek politika diskriminatzaileak ontzat eman eta kasu askotan praktikan jartzen dituztela salatzeke.

Argi dago ezarritako boterea, Patronala, aparatu judiziala eta poliziala, gure ekintzak neutralizatzen eta zigortzen saiatzen ari direla, atxiloteten,

isunen, grebak efekturik gabe uzteko % 100eko gutxieneko zerbitzuen, eguneroko kaleratzeen bidez. Aste honetako polizia-muntaia, patronalaren eta haren zerbitzura dagoen aparatu judizial-polizialaren artean antolatua, horren erakusgarri da.

Ez da kasualitatea gure jarreraren aurrean sistemak erantzutea, eta egiten ari den bezala erantzutea. Gure borrokaren aurrean, sistema kapitalista heteropatriarkala berrarmatu egiten da. Zentsuratu egiten gaitu, atxilotu, zigortu, diziplinatu egin nahi gaitu, beldurra izan dezagun, isil gaitzen eta otzanak izan gaitzen. Izan ere, sistemari oso gogaikarria egiten zaio ezarri digun rolari guk uko egin eta errebelatzea.

Sistemari ez zaio interesatzen eta ezin du jasan gu, emakume langileok, aurrez aurre jartzea. Ez da kasualitatea borroka sindikal feminista gero eta indartsuagoa denean, oihartzun eta jarraipen handiagoa lortzen ari denean, "gugandik espero dena" alde batera uzten ari garenean, erreakzio gogor, bortitza eta muturrekoa izatea.

Ez da kasualitatea bi ekintza sindikal zehatzen inguruan antolatutako muntaia polizial hau Nafarroan gertatzea; izan ere, euskararekiko eta euskal kulturarekiko, aldarrikapen sozialekiko eta baita emakumeen* eskubideekiko ere izugarri oldarkorra izan den Erregimena jaun eta jabe izan baita lurralde honetan, eta oraindik ere Erregimenaren hainbat garrok bizirik baitiraute.

Ezarritako ordena zailtzen jartzen ari gara, eta garesti ordainduko dugula adierazi digute. Emakume eta langile gisa. Kapitalak ezin du jasan lan baldintza eta bizitza duinak eskuratzeko gure determinazioa; bere tresna guztiak jartzen ari da gure ildoa eragozteko. Alabaina, patroiek eta epaileek ez dakite beren erasoan aurrean indartsuago bihurtzen garela, elkartu egiten garela, antolatu egiten garela, babesa ematen diogula elkarri.

Sinetsarazi nahi digute emakumeok ez dugula zilegitasunik eta ez garela gure borroken subjektu politikoak, are gutxiago lan-arloan; ez gaudela baimenduta gure eskubideak eskatzeko. Bada, alferrik ari zarete, ez baitugu atzerapausorik emango, ez dugu aldarrikapen bat bera ere alde batera utziko, ez da kide bat ere geratuko bide ertzean; denak batera eta inoiz baino indar handiagoz borrokatzen jarraituko dugu.

Gora borroka feminista!
Gora sindikalismo feminista!

LAB

